



8. AZTERKETARIA

AZALPENA:

Ez da gai egokitu zaion testuaren gaineko informazio nagusia emateko. Oso motz geratu da azalpenean; zehatzago esanda, bere kabuz ezer gutxi azaldu du eta aztertzaileak lagundu ostean esan du zer edo zer.

Hasieran (1'50" ingurura arte) jario nahiko naturala dauka, baina hortik aurrera ezinean dabil.

Esaldiren bat osatzeko gai izan denean (oso gutxitan) ez da gaizki aritu, baina ez du ataza bete.

Momentu batean :“Eske badakit hitz egiten baina...” esaten du, baina ez da nahikoa ataza gainditzeko.

Aparteko azalpena merezi du kasu honetan aztertzailearen lanak; izan ere, gai izan da azterketariaren isiluneak neurri handi batean errespetatzeko eta “laguntza” eskaini dionean, galdera irekiak egin dizkio, zer edo zer atera nahian.

Puntuazioa: 7

ELKARRERAGINA:

Ez da gai jarioasunez eta bat-batean hitz egiteko eta elkarreraginean modu naturalean jarduteko.

Kosta egiten zaio egokitu zaion tesia defendatu eta garatzea. Zenbaitetan solaskideak laguntzen dio aurrera egiten. Hitzen errepertorioa oso murrizta da. Hitza hartu, solaskidearen hitzak aintzat hartu eta hura konbentzitzen saiatu nahi duenean, asko kostatzen zaio modu naturalean jardutea.

Ataza honetan ere aztertzaileak laguntzen dio, baina hala ere ez du lortzen aurrera egiterik.

Puntuazioa: 6

C1 mailaren langatik oso azpitik dago.